BALDINTZA TEKNIKO BEREZIEN PLEGUA

«ORDUTEGIAK ETA SARBIDEA KONTROLATZEKO EKIPOAK ETA SOFTWAREA MANTENTZEKO ZERBITZUA BERRITZEA»

1.- KONTRATUAREN XEDEA

Kontratu honen xedea hau da: BBUPren instalazioetarako sarbidea eta presentzia kontrolatzeko ekipoak eta lotutako softwarea mantentzeko zerbitzua berritzea.

2.- EGUNGO EGOERA

BBUPk Primion DIGITEKen ekipoak erabiltzen ditu BBUPren instalazioetarako sarbidea kontrolatzeko, bai sistema biometrikoen bidez (aztarna, aurpegi-detekzioa), bai sarbide-txartelen bidez. Primion DIGITEKek Evalos softwarea ere eskaintzen du, sarbide hori kudeatzeko eta kontrolatzeko, bai eta langileen oporrak eta absentziak kontrolatzeko ere.

3.- KONTRATUAREN DESKRIBAPENA

Terminal eta aplikaziorako euskarri-lana hau izango da: terminalek behar bezala funtzionatzen dutela ziurtatzeko ekintza zuzentzaileak eta prebentzio-ekintzak gauzatzea.

3.1.- EKIPOEN MANTENTZE-LANAK

BBUPk, gaur egun, 50 terminal ditu martxan, eredu hauetakoak:

Erref.	Ekipoa	Aleak
MHD0002	MICROLOGIC15/PP.00	4
MHD000169	MICROLOGIC20 BIO/S-30	2
MADT1110-277.01	ADT 1110 PS	1
MT111D659.00	MICROLOGIC 900 BIO Cap PP 1R	18
MA141D659.00	ML7 BIO Cap P version 2	23

Kontratuak barne hartzen du horien guztien mantentze-lanak egitea bakoitza instalatuta dagoen lekuan. Gaur egun, hauek dira kokapenak: Bilboko bulego nagusiak (Albia eraik.), Beleturiko EUT, Galindoko HUA, Barakaldoko Herritarren Arretarako Bulegoa, Gernikako Herritarren Arretarako Bulegoa, Bermeoko Herritarren Arretarako Bulegoa, Sukarrietako Herritarren Arretarako Bulegoa, Undurragako presa, Ordunteko presa, Lamiarango HUA, Bermeoko EUT, Burgoako EUT eta Sollanoko EUT.

Zerbitzuak bere gain hartuko du funtzionamendu eta erabilera normala dela-eta kontratu honen xede diren osagaiek izan ditzaketen matxurak konpontzea. Terminala instalatuta dagoen lekuan konpondu ezin delako

ordeztu behar bada, adjudikaziodunak beharrezkoak diren ekintza guztiak bere gain hartuko ditu (desmuntatzea, lekualdatzea eta berriz muntatzea), terminala berriz martxan egon arte.

Erantzuteko denbora, gehienez ere, 48 ordukoa izango da. Erantzuteko denbora da bezeroaren zerbitzu-eskaera jasotzetik ekipoan edo sisteman sartu arte igarotzen dena.

Matxura bat konponezina denean, zerbitzuak piezak ordeztu beharko ditu.

Halaber, beharrezkoa denean, terminalen firmwarea ere eguneratuko da.

Zerbitzuak barne hartuko ditu in situ egin behar diren matxurak konpontzeko teknikarien garraio-kostuak.

Plegu honetan jasotako ekipo bat beste leku batera eramanez gero, adjudikaziodunak ekiporako euskarri-lanak egiten jarraituko du.

3.2.- KUDEAKETA-SOFTWAREAREN MANTENTZE-LANAK

Terminaletan jasotako fitxaketak eta presentzia-kontrolak prozesatzeko Evalos 8 eta Secure 8 ordutegi-kontroleko softwarea erabiltzen da. Software hori SQL Server datu-basea duen BBUPren zerbitzari batean dago.

Softwareak Enplegatuaren Ataria (Workflow + Kiosko) modulua ere barne hartzen du. Modulu horrekin markatzea urrunetik kudeatu ahal da, baita absentziak eta oporrak kudeatu eta onartu ere.

Halaber, Web-zerbitzuak modulua barruan dago, BBUPren beste aplikazio batzuekin integratu ahal izateko.

Kontratu honek aplikazio horien mantentze-lanak barne hartuko ditu, bai eta eskuragarri dauden eguneraketak eta instalazioak egitea ere.

4.- FAKTURAZIOA

Urtebeteko aldi bakoitzaren hasieran, urteko ziurtagiria egingo da, une horretan benetan instalatuta dauden ekipoak kontuan hartuta; izan ere, denborarekin ekipoak ordeztu edo berriak jarri ahal dira.

Ekipo berriak erostea kontratu honetatik kanpo dago. Hurrengo urteetako mantentze-lanak baino ez dira fakturatuko.

5.- SEGURTASUNA ETA KONFIDENTZIALTASUNA DATU-BABESA

Adjudikazioduna behartuta dago kontratua betetzean jakin lezakeen edozein daturen konfidentzialtasun eta erreserba erabatekoak eta mugagabeak gordetzera, bereziki datu pertsonalenak, baldin eta Datuak Babesteko Agentziaren aurrean aitortutako fitxategietan jasota badaude eta dagokion Datuak Babesteko Erregistro Orokorrean alta emanda badaude. Datu horiek ezingo ditu kopiatu edo erabili plegu honetan agertzen den helbururako ez bada, ezta beste batzuei gordetzeko utzi ere.

Adjudikaziodun gisa proposatzen den lizitatzaileak deskribapen-memoria bat entregatuko du, erabilitako datuen eta emandako agirien eskuragarritasuna, konfidentzialtasuna eta osotasuna bermatzeko hartuko dituzten neurriei buruzkoa. Halaber, erabili beharreko materiala eta informazioa behar bezala erabiltzeko, BBUPrekin harremanetan jartzeko baimena duen pertsona edo pertsonen izena jaso beharko du memoria horretan, enpresaren berezko erantzukizunari kalterik egin gabe. Konfidentzialtasuna gordetzeko betebehar horrek iraun egingo du, kontratua azkendu arren, informazioak izaera hori galdu arte edo BBUPk behar den baimena eman arte.

Sektore Publikoko Kontratuen 9/2017 Legearen hogeita bosgarren xedapen gehigarria arabera, lizitatzaileak nahitaez bete beharko ditu Izaera Pertsonaleko Datuak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan xedatutakoa eta hura garatzeko araudia, abenduaren 21eko 1720/2007 Errege Dekretuan bilduta. Gainera, lege organiko horren 12. artikuluan ezarritako kontratura atxikiko da kontratua formalizatu eta hilabeteko epean.

6.- ZERBITZUAREN ORDUTEGIA

Arreta-ordutegia hau izango da: astelehenetik ostegunera 8:00etatik 17:30era eta ostiraletan 8:00etatik 15:00etara. Udako lanaldian (ekainetik irailera), ordutegia 08:00etatik 15:00etara izango da.

Bilbon, 24 de marzo de 2026

Kontratuaren kudeatzailea
David Alonso Villafáfila

Informatikako zuzendariordea
Santiago Guillén López